

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4527

AGINDUA, 2018ko irailaren 5ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duena 2018-2019 ikasturterako.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak –abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartuak– 16. artikuluan ezartzen duenez, «Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa betetze aldera, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da irakaskuntza bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, molde eta espezialitate orotan, Konstituzioaren 27. artikulua eta bera gara dezaten lege organikoei kalterik egin gabe, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari aitortzen dizkion ahalmenei kalterik egin gabe eta hori betearazteko eta bermatzeko beharrezko den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe».

Halaber, herritar guztiek dute hezkuntzarako eskubidea eta irakaskuntzako askatasuna, eta botere publikoen zeregina da dauden mugak edo desorekak berdintzera bideratutako neurriak hartzea, hezkuntzara berdintasun egoeran iritsi ahal izateko.

Horregatik, aintzat hartuta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea; Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; diru-laguntzei buruz indarrean dagoen legeria, hain zuzen ere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onesten duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legea, hauxe

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egitea, deialdi honen I. eranskineko 1. artikuluan jasotako ikasketetatik edozein egiteko 2018-2019 ikasturtean, Euskal Autonomia Erkidegoko edozer ikastetxetan.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

Xede horretarako, 55.000.000 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura; horietatik, 45.000.000 euro 2018ko ekitaldiko ordainketa-kredituarekin finantzatuko dira, eta 10.000.000 euro 2019ko ekitaldiko konpromiso-kredituarekin.

Beharrezko izanez gero, diru-zenbateko horiek handitu egin daitezke, ebazteko dauden laguntza-ebazpenek eskatzen duten diru-zenbatekoak kontuan hartuta. Hori diru-laguntzei buruzko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Horren berri, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak emango du ebazpen baten bitartez.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari hilabeteko epean, agindua

2018ko irailaren 14a, ostirala

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, agindua aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 5a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

I. KAPITULUA

LAGUNTZA JASO DEZAKETEN IKASKETAK

1. artikulua.– Zer ikasketa egiteko eska daitekeen laguntza.

Agindu honetan iragartzen diren ikasketa-beka eta -laguntzak unibertsitateaz kanpoko ikasketa hauetakoren bat egiten duten ikasleei bideratuta daude:

- a) Haur Hezkuntza.
- b) Lehen Hezkuntza.
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- d) Batxilergoa.
- e) Oinarrizko Lanbide Heziketa, erdi-mailakoa edota goi-mailakoa.
- f) Musikako eta dantzako oinarrizko ikasketak eta ikasketa profesionalak.
- g) Arte plastikoak eta diseinua, heziketa-zikloak.
- h) Kirol-irakaskuntzak.

2. artikulua.– Baztertzeak.

Egoera hauetan, beka edo laguntza ukatu egingo da:

a) Homologatu gabeko ikastetxe pribatuetako ikasleek ez dute ikasketa-laguntzarik jasotzerik izango, ikastetxean zein ikasketa egiten den gorabehera. Hala ere, ikasketa horietako irakasgai guztietako azterketak ikastetxe ofizialetan egiten badituzte, onartu egingo dira.

b) Onartu gabeko ikastetxeetako edo Haur Hezkuntzako lehen zikloa irakasteko ikastetxeen erroldan inskribatu gabeko haur-eskoletako ikasleak.

c) Haurreskolak Partzuergoko neska-mutilak.

d) Diru-laguntzen onuradun izateko ezgaitzen duen legezko edozein arrazoi izanda edo deialdi honetan eskatzen diren baldintzak bete ezean.

3. artikulua.– Betekizun orokorrak.

1.– Deialdi honetan jasotzen diren ikasketek onarpen ofiziala izan behar dute, eta hezkuntza-administrazioak onartutako ikasketa-planekin bat etorri.

2.– Ikasleek agindu honen I. eranskinaren 1. artikuluan ezarritako ikasketetakoren bat egin beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe baimenduetan.

3.– Ikasleak profesional gisa aritzeko gaitzen duen titulu akademikoren bat baldin badu, beka jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da egin nahi dituen ikasketak duen tituluaren jarraipena izatea.

II. KAPITULUA

LAGUNTZA ETA BEKA MOTAK

4. artikulua.– Bekaren edo laguntzaren osagaiak.

Deialdi honetan araututako ikasketa-beka edo -laguntzek osagai hauetakoren bat edo gehiago eduki ahal izango dute:

- a) Kuota-osagaia, 0 eta 1 urte bitarteko ikasleak.
- b) Irakaskuntza-osagaia.
- c) Joan-etorrien osagaia.
- d) Egoitza-osagaia.
- e) Ikasmaterialaren osagaia.
- f) Jantoki-osagaia.

5. artikulua.– Kuota-osagaia, 0 eta 1 urte bitarteko ikasleak.

Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko 0 eta 1 urte bitarteko ikasleek ordaindu behar duten kuota murrizteko.

6. artikulua.– Irakaskuntza-osagaia.

1.– Osagai honek ezin izango du inoiz gaintitu ikasleak ikasten duen ikastetxean 2018-2019 ikasturtean gehienez ere ordaindu beharreko kuota.

2.– Kasu hauetan ez da laguntzarik emango:

- a) Ikastetxe publikoak.
- b) Hezkuntza-itun osoko ikastetxe edo mailak.
- c) Kontzeptu honengatik kuotarik ordaintzen ez duten ikastetxeak.
- d) 0 eta 1 urte bitarteko ikasleak.
- e) Toki-korporazioen ikastetxeetako 2 urteko ikasleak.

7. artikulua.– Joan-etorrien osagaia.

1.– Osagai hau emateko orduan, kontuan izango da 5 kilometro baino gehiago egotea ikaslearen bizilekuaren eta egin nahi duen maila, eredu eta lansaio bereko ikasketak ematen dituen ikastetxe hurbilenaren artean, irizpide hauen arabera:

– Ikaslearen bizilekua eta matrikulatuta dagoen ikastetxea udalerrri berean badaude, osagai hau ez da emango.

– Matrikulatuta dagoen ikastetxea ez bada bizilekutik hurbilen dagoena, osagai hau ematera-koan, hurbilen dagoen ikastetxerainoko distantzia zenbatuko da.

– Bizilekutik hurbilen dagoen ikastetxean tokirik ez dagoela egiaztatzen badu, osagai hau ematera-koan, matrikulatuta dagoen ikastetxerainoko distantzia hartuko da kontuan.

2.– Osagai hau emateko, herriaren erdialdetik ikastetxera dagoen distantzia hartuko da kontuan kalkulua egiteko, eta eskala honen arabera banatuko da:

5 eta 10 km bitarteko distantzia.

10 eta 30 km bitarteko distantzia.

30 eta 50 km bitarteko distantzia.

50 km baino gehiago.

3.– Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailek eta urruneko araubideko mailek ez dute osagai hau jasotzeko eskubiderik izango.

4.– Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, osagai hau emango da, maila gora-behera, joan-etorrietarako diruz lagundu gabeko garraioa erabiltzen denean eta joan-etorriok 5 km edo gehiagokoak direnean.

5.– Musika eta dantzako ikasketa oinarrizkoetan eta profesionaletan, osagai honen zenbatekoa jakiteko kontuan hartuko da astean zenbat egunetan bertaratu behar den.

8. artikulua.– Egoitza-osagaia.

Osagai hau emateko orduan, asteko eskola-orduak ez dira 20 baino gutxiago izango, eta kontuan izango da ikaslea bizi den udalerrian edo bizilekutik distantzia txikiagora ba ote den ikasleak egin nahi duen maila, eredu eta lansaio bereko ikasketarik ematen duen ikastetxerik, eta ikastetxe horrek ba ote duen plaza librerik. Era berean, ikasleak egiaztatu beharko du etxetik kanpo bizi beharra duela, dela familiaren etxetik ikastetxera dagoen distantziagatik, dela diren garraiobideengatik.

Musika eta dantzako ikasketa profesionalak, diseinu eta arte plastikoetako ikasketak, kirol-ikasketak eta lanbide-heziketa egiten dituzten ikasleei emango zaie osagai hau.

Joan-etorrien osagaia eta egoitza-osagaia ez dira inoiz bateragarriak izango.

9. artikulua.– Ikasmaterialaren osagaia.

Ezingo dute osagai hau eskuratu baldin eta Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailan ari diren ikasleek uko egiten badiote «Curriculumak garatzeko material didaktikoaren eta bitartekoen programari».

Osagai hau maila guztiei emango zaie, Haur Hezkuntzako 1. zikloko mailari izan ezik.

10. artikulua.– Jantoki-osagaia.

1.– Osagai hau emango zaie Haur Hezkuntzako lehen zikloko 2. urteko haurrei, Haur Hezkuntzako 2. ziklokoei, Lehen Hezkuntzako ikasleei, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. zikloko ikasleei, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. zikloko ikasleei eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, baldin eta jantokia erabiltzen badute.

2.– Osagai hau kalkulatzeko, jantokira 178 eskola-egun joan behar da gutxienez, baina, egun gutxiagotan joanez gero, jantokira joan den egun-kopuruaren arabera izango da osagaia.

3.– Osagai hau baliatzeko eskubidea izateko, ikasturtean jantokira 20 egun baino gehiagotan joan izana justifikatu beharko du ikasleak. Kasu guztietan, baldintza hauek egiaztatu beharko dira:

a) Ikasleak jantoki-zerbitzua baliatzen duela eguerdian.

b) Administrazioari ez zaiola kostua bikoizten.

III. KAPITULUA

BEKEN ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

11. artikulua.– Osagaien zenbatekoak.

Hauek izango dira osagaien gehieneko zenbatekoak:

1.– Kuota, 0 eta 1 urte bitarteko ikasleak.

Haur Hezkuntzako 0 eta 1 urte bitarteko ikasleak, hilean 90 euro.

2.– Irakaskuntza:

a) Haur Hezkuntzako 2 urteko gela, 200 euro.

b) Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketa, 590 euro.

c) Gainerako mailak, musikako udal-ikastetxeetan emandakoak barne, 295 euro.

3.– Joan-etorriak:

a) 5 eta 10 km bitarteko distantzia, 192 euro.

b) 10 eta 30 km bitarteko distantzia, 385 euro.

c) 30 eta 50 km bitarteko distantzia, 762 euro.

d) 50 km-tik gorako distantzia, 993 euro.

4.– Egoitza:

a) Erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketa, ikasturte bat eta praktikak hartzen dituen, 2.969 euro.

b) Gainerako mailak, 2.531 euro.

5.– Ikasmateriala:

a) Haur Hezkuntza (2. zikloa), 78 euro.

b) Lehen Hezkuntza, 117 euro.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 159 euro.

d) Goi-mailako Lanbide Heziketa, 226 euro.

e) Gainerako mailak, 202 euro.

Egoera hauetan ez dira zenbateko horiek emango:

a) Lehen Hezkuntzako ikasleak, baldin eta ikastetxe publikoetan ikasten badute; halakoetan, 38 euro emango dira lehen eta bigarren mailatarako, eta 50 euro hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailatarako.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleak, baldin eta ikastetxe publikoetan ikasten badute; halakoetan, 60 euro emango dira.

6.– Jantokia.

Gehienez ere 712 euro izango dira; zenbateko hori honela kalkulatu da: jantokiko egun kopurua bider 178 egun gehienez ere, eta eguneko prezioa, gehienez ere, 4 eurokoa izanik.

12. artikulua.– Beka edo laguntzaren zenbateko osoa.

1.– Ikasleak zenbat osagai jasotzeko eskubidea duen, bada, osagai horien baturak emango du beka edo laguntzaren zenbatekoa, betiere agindu honetan ezartzen diren arauen arabera. Zenbatekoa, gehienez, zerbitzu bakoitzaren benetako kostuaren parekoa izango da, inoiz ere ez hortik gorakoa.

2.– Inork ezin dezake jaso agindu honetan arautzen diren beka edo laguntzetariko bat baino gehiago, nahiz eta aldi berean agindu honetako 1. artikuluan aipatzen diren beste ikasketa batzuk egin.

13. artikulua.– Prezio publikoen salbuespena.

Musikako eta dantzako ikasketa oinarrizkoak eta profesionalak eta kirol-ikasketak egiteko beka ematen badira, ez dira ordaindu beharko Hezkuntzako sailburuaren Aginduan zehaztutako irakaskuntzako prezio publikoak, hain zuzen, Hezkuntza Sailak eskainitako zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen ezarritakoak; hau da, beka edo laguntza eskuratu duen ikasketarako ez du ordaindu beharko.

IV. KAPITULUA

BETEKIZUN EKONOMIKOAK

14. artikulua.– Errenta-mugak.

Honako errenta-muga hauek aplikatuko dira hezkuntza-maila bakoitzean ikasteko beka eta laguntzen osagaiak emateko:

- Haur Hezkuntzako mailan (1. zikloan), familiaren errentak ezin izango du 1. muga gainditu.
- Haur Hezkuntzako mailan (2. zikloan), familiaren errentak ezin izango du 2. muga gainditu.
- Gainerako mailetan:

* Eskola-materialen osagiarako, familiaren errentak ezin izango du 3. muga gainditu;

* Irakaskuntzako, jantokiko, joan-etorrietako eta egoitzako osagaietarako, familiaren errentak ezin izango du 2. muga gainditu.

Kide konputagarrien kopurua	1. muga euroak	2. muga euroak	3. muga euroak
1	8.143	10.668	14.826
2	13.350	17.377	25.308
3	17.567	22.820	34.352
4	20.201	27.069	40.796
5	23.232	30.717	45.598
6	26.717	34.241	49.224
7	30.724	37.576	52.810
8	35.333	40.882	56.380
+ 1	+3.500	+3.282	+3.562

– 8tik gorako kide konputagarri bakoitzeko, errenta-mugetan (+1) gisa ezarri diren kopuruak gehituko dira.

15. artikulua.– Bizikidetzaren unitatearen kide konputagarriak.

1.– Familiaren errenta kalkulatzeko, honako hauek dira bizikidetzaren unitatearen kide konputagarriak: aita, ama, tutorea edo adin txikikoa jagon eta babesten duena, eskatzailea, 2017. urtean etxean bizi izan diren ikaslearen 26 urtetik beherako neba-arreba ezkongabeak edo adin horretatik gorakoak, baldin eta dibertsitate funtzional fisikoa, psikikoa edo sensoriala badute; baita etxe berean bizi diren gurasoen aurretikoak ere, betiere udalaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badute.

Kide konputagarritzat joko dira, halaber, hogeita sei urtetik beherako pertsonak, harrera-familiak legez hartu baditu edo familiaren kontura bizi badira, betiere bertan bizi direla behar bezala justifikatu eta egiaztatuta.

2.– Eskatzailearekin bizi ez den gurasoa ez da kide konputagarritzat joko, unitatearen diru-sarretan horren ekarpen ekonomikoa kontuan hartu arren. Eskatzailearekin bizi ez diren neba-arrebak ere ez dira konputagarritzat joko.

Kide konputagarritzat joko da eskatzailearen aitaren edo amaren ezkontide berria edo izatezko bikotekide edo antzeko egoerako bikotekide berria, eskatzailearen aitarekin edo amarekin bizi dena, bizileku berean; horrenbestez, haren errenta eta ondarea konputatu egingo dira.

3.– Zaintza partekatua izanez gero, eskatzailea bi bizikidetzaren unitateetako kideetatik hartuko da; hala, bi bizikidetzaren unitateen errentaren eta ondarearen % 50 konputatuko da. Kasu horietan, kide konputagarriak % 50ean zenbatuko dira, eskatzailea eta haren neba-arrebak izan ezik. Kideen batura zenbaki osoa ez bada, gorantz biribilduko da.

Bizikidetzaren unitateetan neba-arrebaordeak izanez gero zaintza partekatuan, eta, hortaz, aldi-aldi elkarrekin biziz gero, % 50ean zenbatuko dira. Kideen batura zenbaki osoa ez bada, gorantz biribilduko da.

4.– Eskatzailea jatorrizko familiarik independizatu bada, eta bere bizikidetzaren edo familia-unitatea osatu baldin badu, eta unitate berri horretan bere ohiko bizilekua baldin badauka, honako hauek izango dira kide konputagarriak, bekaren ondorioetarako:

a) Eskatzailea.

b) Bere ezkontidea, izatezko bikotekidea, erregistratua zein ez.

c) 26 urtetik beherako seme-alabak (seme-alabek dibertsitate funtzional fisikoa, psikikoa edo sensoriala badute, hogeita bost urtetik gorakoak izan daitezke, gurasoen mende bizi badira).

d) Foru-araudian onartutako harrera-egoera batean dauden pertsonak; eta inguruabar hori behar bezala alegatu eta egiaztatu beharko da.

e) Eskatzailearen ahaideak, edo beraren ezkontide edo izatezko bikotekidearenak, ohiko bizilekuan bizi badira.

f) Eskatzailearekin bizileku berean bizi den pertsona, nahiz eta haien artean ez izan ahaide-tasun-harremanik, eta alokatutako etxebizitza partekatzen dutela egiaztatzea ezinezkoa izan.

5.– Eskatzailea jatorrizko familiatik independizatu bada edo zurtza baldin bada, eta pertsona bateko bizikidetzaren unitate bat osatzen badu, independentetzat jo ahal izateko, honela ziurtatu beharko du ekonomikoki independentea dela eta gurasoen etxetik irten dela:

a) Gurasoen etxetik irten dela egiaztatzeko, eskatzaileak bere bizilekuan, eta ez gurasoen etxean, errolatua egon beharko du (erositako edo alokatutako etxebizitza batean, bakarrik edo pisu partekatu batean; eta bizilekua ezin da senide batena izan, 4. gradura arteko ahaidetasuna odol bidez edo 2. gradura arteko ahaidetasuna ezkontza bidez).

Edo, hala badagokio, zurztasun-egiaztagiria.

b) Ekonomikoki independente dela egiaztatu beharko du, gastuak (janaria, arropa, etxebizitza, garraioa) ordaintzeko behar beste ekonomia-baliabide dituela ziurtatuz. Ondorio horietarako, eskatzailearen baliabide ekonomikoak kalkulatzeko, haren diru-sarrerak batuko dira eta ez dira kontuan hartuko ohiko bizilekuan bizi den beste pertsona batenak. Diru-sarrerak 1. mugaren parekoak edo txikiagoak baldin badira, pertsona horrek Lanbideak kudeatutako diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako diru-laguntza osagarria eskatu ahaliko ditu, bai eta beste laguntza batzuk ere. Hortaz, diru-laguntza horiek eskatu dituela eta zer egoeratan dauden egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu. Diru gastuak ordaintzeko beste diru-sarrera dagoela egiaztatzeko xedez, honako hauek aztertuko dira:

– Eskatzaileak aurkeztu dituen diru-sarreraren eta gastuen arteko balantzea, hori ziurtatzeko agi-riekin batera. Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eskatu ahal ditu.

– Zerga-egiaztagiria, gurasoek berarengatik ez dutela zerga-kenkaririk egiten berresteko.

Eskatzaile bat ekonomikoki independente dela jo ahal izateko, gurasoek edo lege-tutoreek ezin dute eskatzaileari lotutako zerga-kenkaririk egin PFEZaren aitortpen-likidazioan.

Eskatzaileak emantzipazio-programa baten laguntza jasotzen badu, eta horretan janaria eta ostalua sartuta baldin badaude, independentzia familiarraren betekizuna betetzetik salbuetsita egongo da, baina independentzia ekonomikoari lotutako agiriak aurkeztu beharko ditu.

6.– Ikasle independenteen kasuan, familiararen egoitzatzen joko da ikaslea ikasturtean bizi dena; beraz, ez da egoitza-osagaia emango.

16. artikulua.– Errenta kalkulatzeko.

1.– Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztu duten kide konputagarrien errenta zehazteko, zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga-oinarria batuko dira. Zerga-oinarri orokor osoak edo zati batek jarduera ekonomikoaren etekinak baditu, eta etekin horiek zeinu negatiboa badute, emaitza 0 izango da. Gainerako zenbatekoari kuota likidoa kenduko zaio.

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergen kontuan hartzen ez diren diru-sarrerak eta zerga horretatik salbuetsita daudenak gehitu egingo zaizkio aurreko formularekin ateratako emaitzari.

2.– Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortpena egiteko obligaziorik izan ez, eta halakorik aurkeztu ez duten kide konputagarrien errenta honela kalkulatu da:

a) 2017ko ekitaldian edozein kontzeptu dela-eta lortutako diru-sarrera guztiak batuko dira (lan-etekina, langabezia-prestazioak eta -laguntzak, pentsioak, gizarte-laguntzak, salbuetsitako errentak...), baita –ohiko etxebizitza barik– hiri-izaerako ondasunen etekina ere, betiere 2017ko ekitaldian aplikatzeko den zerga-araudiaren arabera.

b) Batura horretatik aplikatzeko diren gastu kengarriek eta konturako atxikipenek sortutako zenbatekoa kendu beharko da.

3.– Zenbatespen objektiboaren edo zuzeneko zenbatespenaren zerga-erregimenari atxikitako enpresa- eta lanbide-jardueren kasuan, errentagarritasun errealeko irizpideak aplikatuz egingo da etekinen zenbatespena. Era berean, aurreko atalean xedatutakoa enpresa txiki eta ertainei aplikatuko zaie, baldin eta merkataritza-sozietateak badira eta kide konputagarriak enpresa horietan bazkide, partaide, eta abar badira, eta, aldi berean, kide konputagarriak bertako langile badira.

4.– Herri Administrazioek ikasketarako emandako beken eta laguntzen zenbatekoak dira diru-sarreretatik joko ez diren diru-sarrera bakarrak.

5.– Harrera-familietan diren ikasleei dagokienez, honako hau joko da errenta garbitzat: ikasleak jasotzen dituen diru-sarrerak, hots, Foru Aldundiak emandako laguntzak. Kasu horietan, harrierari buruzko foru-agindua eta dagokion foru-aldundiak erabakitako harrerako baldintzak aurkeztu beharko dira.

17. artikulua.– Kenkariak.

Bizikidetza-unitatearen errenta zehaztu ondoren, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, honako kontzeptuengatik dagozkion zenbatekoak kenduko dira:

1.– Bizikidetza-unitateko kide konputagarrien errentaren % 20, kasu hauetan:

a) Eskatzailea guraso bakarreko bizikidetza-unitate bateko kidea denean, baldin eta diru-iturri bakarra badu: inoren konturako lana, pentsioa edo ordaintzen diren elikagaiak.

Guraso bakartasuna familia-liburuarekin justifikatuko da guraso aitortu bakar baten kasuan, edo ebazpen judizialaren bidez bi guraso aitorturen kasuan.

b) Eskatzailea umezurtza denean, eta diru-iturri bakarra umezurtz-pentsioa bada edo beste bizikidetza-unitate baten mende badago.

2.– Familiako kide konputagarri guztiek ekarritako diru-sarreraren % 50. Familiaren sostengatzaile nagusiaren eta haren ezkontidearen diru-sarrerak ez dira horretan sartzen.

3.– 500 euro, familia-egoitzan bizi den neba-arreba bakoitzarengatik, eskatzailea barne dela, baldin eta kategoria orokorreko familia ugariak badira; kopuru hori 765 eurokoa izango da kategoria bereziko familia ugarietan. Eskatzailea bera bada familia ugariaren titularra, aipatutako kopuruak familia osatzen duen seme-alaba bakoitzarengatik kenduko dira.

4.– 1.811 euro, lege onartutako % 33ko edo gehiagoko minusbaliotasunen bat duen bizikidetza-unitateko kide bakoitzarengatik, eskatzailea barne. Kenkaria 2.881 eurokoa izango da, minusbaliotasuna % 65ekoa edo handiagoa denean. Ikasleak berak badu % 33 eta % 65 arteko minusbaliotasuna eta mugikortasun mugatuta badu, edo % 65eko edo goragoko minusbaliotasuna badu, kenkaria 4.000 eurokoa izango da.

5.– 1.176 euro, unibertsitateko ikasketak egiten ari den eta ikasketak direla-eta familiaren bizilekutik kanpo bizi den 26 urte baino gutxiagoko neba-arrebako.

18. artikulua.– Ondare-mugak.

Kide konputagarrien errenta edozein delarik ere, eskatutako beka edo laguntza ukatu egingo da honako kasu honetan: 2017ko abenduaren 31n, kide konputagarrien ondarearen elementu adierazle baliok muga hauetakoren bat gainditzen badu:

1.– Hiri-finkak.

a) Kide konputagarrien hiri-finken katastro-balioen batura, gehienez ere, 42.900 eurokoa izango da.

Gehienezko katastro-balioaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko sostengatzaile ekonomiko nagusien diru-sarreraren iturria den norberaren konturako jarduera ekonomikoa egiteko erabiltzen diren eraikinak. Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, jarduera ekonomikoa 2017ko zerga-ekitaldian eraikin horretan helbideratuta dagoela egiaztatu beharko da.

b) Konputu hori egiterakoan ez da kontuan hartuko ohiko etxebizitza den hiri-finkaren katastro-balioa.

c) Eskatutako laguntza ukatu egingo da kide konputagarriek, ohiko etxebizitzaz aparte, beste bi etxebizitzaren edo gehiagoren jabetza erabatekoa badute.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean dauden hiri-higiezinaren katastroko balioa kalkulatzeko, honako arau hauek aplikatuko dira:

Higiezina Bizkaiko, Gipuzkoako edo Arabako edozein udalerritan badago, katastro-balioa 0,36 koefizienteaz biderkatuko da.

e) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden hiri-finken katastro-balioa zenbateteko, honako arau hauek aplikatuko dira:

Katastroko azken berrikuspenaren data eraginkorra 1990eko urtarrilaren 1etik 2002ko abenduaren 31ra artekoa baldin bada, katastroko balioak 0,49 koefizienteaz biderkatuko dira. Berrikuspen horren eguna 2002ko abenduaren 31ren ostekoa baldin bada, honako koefiziente hauek erabiliko dira, katastro-balioak biderkatzeko:

0,43 koefizientea, 2003an berrikusi direnetarako.

0,37 koefizientea, 2004an berrikusi direnetarako.

0,30 koefizientea, 2005ean berrikusi direnetarako.

0,26 koefizientea, 2006an berrikusi direnetarako.

0,25 koefizientea, 2007an berrikusi direnetarako.

0,25 koefizientea, 2008an berrikusi direnetarako.

0,26 koefizientea, 2009an berrikusi direnetarako.

0,28 koefizientea, 2010ean berrikusi direnetarako.

0,30 koefizientea, 2011n berrikusi direnetarako.

0,32 koefizientea, 2012an berrikusi direnetarako.

0,34 koefizientea, 2013an berrikusi direnetarako.

0,36 koefizientea, 2014an berrikusi direnetarako.

0,36 koefizientea, 2015ean berrikusi direnetarako.

0,36 koefizientea, 2016an berrikusi direnetarako.

0,36 koefizientea, 2017an berrikusi direnetarako.

Nafarroako Foru Aldundiko higiezinaren katastro-balioa 0,50 koefizienteaz biderkatuko da.

Eskatzaileak ziurtatu beharko du higiezinaren katastro-berrikuspena zer urtetan egin den, koefizienteak aplikatu ahal izateko.

2.– Balore higigarriak.

Eskatutako laguntza ukatu egingo da, baldin eta bizikidetz-unitatearen aurrezkien zerga-oinarria 2.100 eurotik gorakoa bada, edo kantitate horretakoa bada higigarrien kapitalaren etekin garbia gehi ondareen irabazi eta galera garbien arteko aldearen batura, kasu honetan izan ezik: bizikidetz-unitatearen errenta garbiak ez gainditzea 14. artikuluan ezarritako 1. muga.

Hortik kanpo geratuko dira ohiko etxebizitza erosi edo konpontzeko jasotzen diren diru-laguntzak.

3.– Merkataritza-, industria- edo lanbide-jarduerak.

Kide konputagarriren bat jarduera ekonomikoren bateko titularra bada eta 2017an 169.470 euro baino gehiagoko fakturazio-bolumena izan badu, ukatu egingo da eskatutako laguntza. Ondorio horietarako, titularrak enpresan duen titulartasun- edo partaidetza-portzentajea, horri dagokion fakturazio-bolumena egotziko zaio jardueraren titularrari.

Halaber, aurreko fakturazio-mugan xedatutakoaren arabera eskatutako laguntza ukatu egingo da enpresa txiki eta ertainen kasuan, baldin eta horien titularrak merkataritza-sozietateak badira eta familia-unitateko kide konputagarrietakoren bat sozietate horietako bazkide, partaide... bada eta, aldi berean, sozietate horietan langile bada.

4.– Familiaren sostengatzaile nagusi ez diren familiako kide konputagarriei dagozkien ondare-balioak.

Kide konputagarriek dituzten ondare-elementuen balioari % 50eko murrizketa aplikatuko zaio; kasu horretan ez dira sartzen sostengatzaile nagusiak.

19. artikulua.– Datuak egiaztatzea.

1.– Hezkuntza Sailak, laguntzei dagokienez beharrezko diren egiaztapenak egiteko, aipatutako erakundeetan azaltzen diren kide konputagarrien datu guztiak erabili ahal izango ditu. Eskatzaileak, eskaera aurkeztuta, baimena emango du organo kudeatzaileak dagokion administrazio publikoan informazio hau bil dezan:

Nortasun-datuak (Polizia Zuzendaritza Nagusia).

Zerga-egoitzari buruzko datuak (foru-aldundiak).

Errolda-datuak (udalak).

Errenta-mailari buruzko datuak (foru-aldundiak).

Katastro-datuak (Katastroko Zuzendaritza Nagusia).

Unibertsitateaz kanpoko eta unibertsitateko tituluei buruzko datuak (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa).

Prestazio sozial publikoei buruzko datuak (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala).

Langabezia-egoerari buruzko datuak (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa).

Etxebideko datuak (Eusko Jaurlaritza).

Familia ugarien tituluei buruzko datuak (Eusko Jaurlaritza).

Izatezko Bikoteen Erregistroko inskripzio-datuak (Eusko Jaurlaritza).

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko datuak (Eusko Jaurlaritza).

Horretarako baimenik eman ezean, eskatzaileak ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu nahitaez. Halaber, elkarreragingarritasun-zerbitzuak funtzionatuko ez balu, baliteke administrazioak dago-kion dokumentazioa aurkezteko eskatzea.

2.– Kasu guztiak aztertu ondoren, gerta liteke ikustea beka edo laguntza jasotzeko bete behar diren eskakizunak faltsutu egin direla edo laguntza ukatzeko arrazoi diren gorabeherak ezkutatu egin direla. Horrelakorik gertatuz gero, beka edo laguntza ukatu egingo da, laguntza emateko ebazpena aldatuko da eta dirua itzularaziko.

3.– Errenta-iturriak ezkutatzuz gero, eskatutako laguntza ukatu egingo da. Berdin dio iturri horiek norberaren konturako lana, besteren konturako lana, pentsioak, lanbide liberaleko jardunak, neka-zarritza, abeltzaintza, industria edo merkataritza ustiapenak, kapital higigarriak, finkak, ibilgailuak, aparatuak edo bestelako ondare-elementuak diren. Horrek ez du esan nahi bidezko diren gaine-rako egintzetatik libre geratzen denik.

4.– Administrazioak, aurreko atalean aipatutako ezkutatzeko hori gertatzen dela egiaztatzeko, edozein frogamota erabili ahal izango du eta, bereziki, Foru Aldundietako Ogasun Departamen-tuetan eta Ogasun Ministerioan dauden datuak.

5.– Egiaztatu beharreko datu ekonomikoak atzerrikoak badira eta/edo Euskal Autonomia Erki-degoko foru-ogasunen esku ez badaude, eskatzaileak eman egin beharko du ondorio horietarako beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa, eta beka edo laguntza ukatu egingo da datuok behar bezala egiaztatzen ez badira.

6.– Ikasleak ikasketa jakin batzuk egiteko laguntza eskatu bazuen eta ikasketa horiek uzten baditu edo matrikula ezeztatzen badu, beka edo laguntza ukatu egingo zaio, laguntza emateko ebazpena aldatu egingo da eta dirua, guztia edo zati bat, itzularazi egingo zaio.

7.– Beka edo laguntza ukatu ahal izango da, baldin eta bizikidetz-unitateek justifikatzen badi-tuzte objetiboki gastu-maila horretatik beherago dauden diru-sarrerak baina ez badute egiaztatzen zer baliabide duten bizitzeko.

8.– Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek beharrezko ikusten dituzten agiri osagarriak eskatu ahal izango dituzte kasu bakoitzaren gorabehera bereziak behar bezala jakiteko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa enpresa txiki eta ertainen kasuan ere aplikatuko da, bal-din eta horien titularrak merkataritza-sozietateak badira, kide konputagarrietakoren bat sozietate horietako bazkide, partaide... bada, eta, aldi berean, sozietate horietan langile bada.

V. KAPITULUA

BETEKIZUN AKADEMIKOAK

20. artikulua.– Betekizun orokorrak eta matrikulari dagozkionak.

1.– Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian, soilik egiaztatu beharko da ikaslea 2018-2019 ikasturterako matrikulatuta dagoela.

2.– Lehenengo artikuluko d) letratik h) letrara bitartean zerrendatutako gainerako ikasketetarako, 2018-2019 ikasturte osoan matrikulatuta egoteaz gain, betekizun hauek eskatuko dira:

a) Mailarik errepikatu ez izana.

b) Ikasturteren bat ikasketarik egin gabe igaroz gero, egin den azken ikasturtearekiko eskatuko dira adierazi diren baldintzak.

c) Ikasketa guztiak edo zatiren bat beka baten bitartez egin badira eta ikasketak aldatzen badira, ezin izango da bekarik jaso aldaketa horrek hezkuntza-prozesuaren barruan urte bat edo gehiago galtzea badakar. Ez da laguntza galduko bakarrik baldin eta indarrean dagoen legedian aurreikusten bada irakaskuntzako beste maila edo gradu batera pasatzea aurretik egindako ikasketen jarraipena izan daitekeela. Autonomia-erkidego honetatik kanpo bekadun izan diren ikasleek bekadun-izaera egiaztatu beharko dute. Gainerako ikasleen kasuan, automatikoki egiaztatuko da hori.

d) Oso-osoan bekarik gabe egindako ikasketak aldatzen badira, ikasketa berrietan beka lortzeko, eskatzaileak utzitako ikasketetako azken ikasturtean lortu beharreko errendimendu akademikoa hartuko da betekizuntzat.

e) Lanbide Heziketako goi-mailako graduko ikasketetako, Arte Plastiko eta Diseinuko ikasketetako eta Kirol-ikasketetako bigarren mailarako, eskatzaileak 2017-2018 ikasturtean egindako ikasketen ehuneko laurogei eduki beharko du gaindituta, gutxienez.

f) Lanbide Heziketako erdi-mailako edo goi-mailako ikasketetan, heziketa-zikloak 2.000 ordu baino gutxiagokoak direnean, ikasturte bat gehi praktikatzat joko dira, eta laguntzak behin eta lehen ikasturtean bakarrik emango dira. Bi ikasturteko ziklotzat joko dira 2.000 orduko iraupena dutenean.

3.– Urruneko batxilergoko ikasleen kasuan, ikasketa-planean ezarritakoak baino ikasturte bat gehiagorako lortu ahal izango da beka.

4.– Musika-ikasketetan, hezkuntza-prozesuan bekadun gisa jarraitzeko, ikasleak landutako musika-tresna edo emandako jakintzagaia hartuko da kontuan, maila goragokoa denean.

5.– Ikasleak genero-indarkeria jasan duten bizikidetzeta-unitatekoak badira, eta aipatutako egoera justifikatzeko urruntzeko agindu judiziala, kondena-epai judiziala edo oinarritzko gizarte-zerbitzuen txostena aurkezten bada, betekizun akademikoak bete barik ere eman egingo dira laguntzak.

VI. KAPITULUA

PROZEDURA-ARAUAK

21. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Eskaera ikasle adindunak edo adingabe emantzipatuak egingo du; adingabe emantzipatu gabeen kasuan, berriz, aitak, amak edo legezko ordezkariak.

2.– Eskaera egiteko, eskaera-formulario telematikoa bete beharko da Hezkuntza Sailaren egoitza elektronikoan, helbide elektronikoa honetan: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus

Deialdiaren II. eranskinean dago eskaeraren eredua.

Formularioan «telefono mugikorra» eta «helbide elektronikoa» atalak betetzeko aukera ageri da. Bete ostean, ulertzen da eskatzaileak baimena ematen diola Hezkuntza Sailari agindu hone-tako I. eranskineko 26. artikuluan aurreikusitako ohar osagarriak helarazteko.

3.– 2017-2018 ikasturtean beka eskatu zuten ikasleei beteta emango zaie eskaera-formularioa. Formulario hori:

– Paper-formatuan jaso ahal izango da ikastetxean, edo

– Bide telematikotik eskuratu ahal izango da, www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus helbide elektronikoa. Horretarako, eskatzaileek aurreko ikasturteko pasahitzak baliatu ahal izango dituzte, hurrengo 4. puntuaren zehaztutako prozedurari jarraikiz erregistratu beharko dute edota ikastetxean jasotzeko eskabide-formularioan ageri den URL helbidearen bidez.

Formularioan ageri diren datuak zuzenak direla egiaztatu ostean, edota egin beharreko aldaketak egin ondoren, eskabidea aurkeztuko da.

– Bide telematikoz, aplikazioan eskabide-formularioa elektronikoki sinatuta edota ikastetxean jasotako formularioan ageri den pasahitzaren bidez.

– Formularioa paperean sinatuta, eta honako toki hauetakoren batean aurkeztuta:

- Beka-eskaeraren xede diren ikasketak egiteko ikastetxeetan.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16. artikulua zehaztutako tokietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Dekretuan (apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua) adierazitakoetan.

Modu automatikoa betetako eskaera-formularioa 2017-2018 ikasturtean beka eskatu zuten ikasleek bakarrik izango dute, baldin eta matrikula kudeatzeko aplikazioan bildutako mailetan ikasten ari badira.

4.– Gainerako ikasleak:

a) Eskabide elektronikoa egiteko, www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus atarira jo eta honako prozedura honi jarraitu beharko diote:

– Ziurtagiri digitala baliatuta sartu (NAN, Izenpe txartela...) edota itsasontzien joko erabilia (B@kq); edo, halakorik izan ezean,

– Sistemaren erregistratuta, helbide elektronikoa baten bidez eta honako bide hauetakoren bati jarraituta:

- HIA (hezkuntzako identifikazio-agiria), eta ikaslearen jaioteguna.

- Nortasun Agiri Nazionala (NAN), haren iraungitze-data zehaztuta. Eskatzailea atzerritarra baldin bada, atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) eta jaioteguna sartu beharko ditu, eta, hala egokituz gero, bai eta atzerritarren identifikazio-txartela ere (AIT). Kasu batean eta bestean, eskatzailearen nortasuna egiaztatu egingo da, datuak egiaztatzeke zerbitzuaren bitartez. Zerbitzu hori Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian dago jasota.

Eskatzaileak ez baldin badauka eskabide telematikoa egiteko bitartekorik, ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxean bertan egin ahal izango du.

b) Eskabide elektronikoa erabat beteta dagoenean, izapidetze telematikoa egiten jarraitu edo paperean aurkeztu aukeratu beharko du.

c) Aurkezpen telematikoa egitea aukeratuz gero, ezinbestekoa izango da sinadura elektronikoa izatea indarrean den ziurtagiri digitalarekin (NAN; Izenpe txartela...) edota itsasontzien joko (b@kq), eta Agindu honetako I. eranskineko 23. artikuluan zerrendatutako dokumentuak aurkeztu beharko dira eskaneatuta, baita eskaera elektronikoki sinatu ere. Orduantxe geratuko da eskabidea erregistratuta.

d) Paperean aurkeztea erabakiz gero, aplikazioak sortuko duen eskabide-formularioa inprimatu beharko da; ondoren, sinatu eta honako toki hauetakoren batean aurkeztu beharko da, agindu honetako I. eranskineko 23. artikuluan zerrendatutako dokumentuekin batera:

– Beka-eskaeraren xede diren ikasketak egiteko ikastetxeetan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16. artikulua zehaztutako tokietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Dekretuan (apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua) adierazitakoetan.

22. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea.

1.– Eskaerak eta beharrezko dokumentazioa aurkezteko epea 2018ko irailaren 17an hasiko da, eta urte bereko urriaren 19an amaituko.

2.– Beka- edo laguntza-eskabideak epe horretatik kanpo aurkeztu ahal izango dira kasu hauetan:

a) Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero aurkeztutako matrikulak badira, betiere matrikula-eskabidearen kopiaekin batera egiten bada eskabidea, matrikula egin eta gehienez ere hilabeteko epean.

b) Aipatutako epeak igaro ostean familiaren sostengatzaile nagusia hiltzen bada, edo arauzko adina betetzeagatik ez den bestelako arrazoirengatik nahitaezko erretiroa hartzen badu.

c) Justifikatutako arrazoi larriren bat dela eta, ikaslearen familiaren egoera ekonomikoak kalte larriak izan baditu.

Nolanahi ere, eskaera berriak 2019ko apirilaren 30era arte soilik onartuko dira.

23. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Beka-eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Guraso bakarreko familien kasuan: hitzarmen arautzailearen fotokopia, aldezturik aurkeztu ez bada. Konpentsazio-pentsioaren egiaztagiri eguneratua, beharrezkoa bada, eta seme-alabentzako mantenu-pentsioarena (Diru-sarreraren fotokopia). Familiaren egoitzan bizi diren kideen errolda-agiria eta, hala badagokio, aitaren edo amaren ezkontidearen edo bikotearen diru-sarreraren ziurtagiria.

b) Laguntza sozialen jasotzaileen kasuan, dagokion erakundeak emandako ziurtagiria.

c) Salbuetsitako diru-sarreraren kasuan: ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiko pensioaren ziurtagiria, zurtasun-pensioarena, kaleratzearengatik kalte-ordainena eta abar.

d) Agindu honetako 17. artikuluan aurreikusitako kenkariak sorraraz ditzaketen kasuak egiaztatzeke agiriak.

e) Honako hauek izan ezean, ikaslearen eta eskaera egiten duenaren nortasuna egiaztatzeke agiria aurkeztu beharko da: sailaren identifikazio-zenbakia, nortasun-agiri nazionala, atzerritarren identifikazio-zenbakia edo atzerritarren identifikazio-txartela.

f) Gurasoen etxetik irten dela eta ekonomikoki independentea dela egiaztatzeke, eskatzaileak egiaztatu beharko du bere bizileku propioan –ez gurasoen etxean– erroldatuta dagoela –erositako zein alokatutako etxebizitza batean, bakarrik zein partekatua–; edota zurtasun-egiaztatzea eta bizitzeko zer baliabide dituen egiaztatu beharko du.

g) Familia-harreraren diren ikasleen kasuan, harrerari buruzko foru-aginduaren eta dagokion foru-aldundiak erabakitako harrera-baldintzen fotokopia, alde zuzen aurkeztu ez bada.

h) Bizikidetzaren edo familia-unitatearen diru-sarrerak eta ekonomia-egoera adierazteko, eskatzaileak garrantzitsutzat jotzen dituen edozein agiri: kaleratze-kitapenak, enplegu-erregulazioko espedienteak, behar bezala erregistratutako dohaintzak eta abar.

i) Eskatzailea izango da eskabidean ematen duen informazio ekonomikoaren erantzule; hala, legez behartuta egongo da bizikidetzaren edo familia-unitatearen diru-sarrera eta ondare guztiak egiaztatzeke agiriak aurkeztera. Eskatu den laguntza ukatu ahal izango da, baldin eta bizikidetzaren edo familia-unitatearen bizi-baliabide guztiak egiaztatzeke agiriak aztertuta, Administrazioak uste badu egiaztatu diren diru-sarrerak bizikidetzaren edo familia-unitatearen gastuak baino txikiagoak direla, aurkeztu den informazioaren edo kanpoko datu batzuen arabera.

2.– Errenta-aitorpena beste autonomia-erkidegoren batean aurkeztu duten bizikidetzaren unitateek edota aurkeztutako aitortzen diren diru-sarrerak guztiak ez baditu, esandakoaz gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

a) Sostengatzaile nagusiaren 2017ko ekitaldiko errenta-aitorpenen (PFEZ) fotokopia guztiak eta, hala badagokio, zerga horren aitortzen diren gainerako kide konputagarrienak. Langile autonomoak izanez gero, jardueraren etekinak kalkulatzeko deklarazio-orri bat ere aurkeztu beharko da.

b) Kide konputagarri guztiak lortutako diru-sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak: gizarte-laguntzak jasotzen badituzte, dagokion erakundeak egindako ziurtagiria; diru-sarrera salbuetsiak, zenbatekoak direla-eta aitortu gabeko diru-sarrerak, balore higigarrien errendimenduak, banku-gordailuak, kontu-korronteen interesak...

c) Profesional eta enpresaburuek aurkeztutako ordainketa zatikatuen aitortzen diren fotokopiak.

3.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aurkezteko obligaziorik izan ezean, kide konputagarri guztiak eskuratutako diru-sarreraren egiaztatzea guztiak aurkeztu beharko dira (gizarte-laguntzak jasotzeko dagokion erakundeak emandako ziurtagiria, salbuetsitako diru-sarrerak, zenbatekoa dela-eta aitortu gabeko diru-sarrerak, balio higigarrien errendimenduak, banku-gordailuak, kontu korronteko interesak...); era berean, profesionalek eta enpresaburuek aurkeztutako zatitutako ordainketengatik aitortzen diren fotokopiak ere aurkeztu beharko dira, baita artikulua honetako lehen zenbakian jasotako informazioa ere.

24. artikulua.– Eskaera aurkeztearekin lotutako ondorioak.

1.– Ikasleak eskabide-eredua sinatuta aurkezteak, edo hura adinez txikia izanez gero haren ordezkariaren legezko ordezkariak sinatzeak, esan nahi du sinadura horrekin erantzukizun solidariopean hau aitortzen duela:

- a) Beka edo laguntzaren deialdiko oinarriak onartzen dituztela.
- b) Eskabidean sartutako datu guztiak egiazkoak direla.
- c) Eskabidea aurkezteak baimena ematen diola Hezkuntza Sailari eskatzailearen nortasuna egiaztatzeko, NAN, AIZ edo AIT agirien bidez.
- d) Hezkuntza Sailari baimena ematen diola Zerga Administrazioen bitartez errentaren eta ondaren gainean beharrezkoak diren datuak lortzeko, bekaren edo laguntzaren ondorioetarako.
- e) Badakitela aitortutako inguruabarren zehaztugabetasunak beka edo laguntza ukatzea edo itzuli behar izatea ekarriko duela.
- f) Beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen partetik bestelako beka edo laguntzarik eskuratuz gero, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako beka atalari jakinarazi beharko diola.
- g) Beka edo laguntza deialdian zehaztutako xederako erabili beharko duela, ez beste ezertarako; hau da, matrikula egiteko, eskolako joan-etorrietarako, azterketetara joateko eta, oro har, beka edota laguntzak estaltzen dituen gastuak ordaintzeko.
- h) Beka edo laguntza jaso eta baliatu ahal izateko ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatu beharko dutela, eta diru-laguntzen onuradun izateko gaitasunik gabe uzten dituen inolako lege-auzitan sartuta ez daudela adierazi.
- i) Beka ematea bideratu zuten baldintzak bete direla egiaztatzeko beharrezko frogaketa-jardueri men egingo diela, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, diru-laguntzen nondik norakoak fiskalizatzean, eskatutako informazio guztia emango duela.

2.– Datu pertsonalak babesteko Lege Organikoan (abendua 13ko 15/1999) eta datu pertsonalen fitxategi publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko Legean (otsailaren 25eko 2/2004) ezarritakoarekin bat etorriz, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatzeko eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, Unibertsitateaz Kanpoko Bekak eta Laguntzak izeneko fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau kudeatzeko eta deialdi honetan parte hartzen dutenei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2010eko urriaren 4an emandako Aginduaren bidez sortu zen (EHAA, 213. zenbakia), eta haren helburua diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea da, bai eta parte-hartzaileei deialdiaren garapenaren berri ematea ere. Fitxategi horren arduraduna Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza da. Fitxategi hura eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta aurkaratzeko eskubidea erabiltzeko Ikastetxeen Zuzendaritzara jo beharko da (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Halaber, deialdi honetara bildutako pertsonak baimena ematen diote Unibertsitate Zuzendaritzari, beste erakunde publiko batzuetan egiaztatzeko ezen aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

25. artikulua.– Eskaeren kudeaketa.

1.– Beka edo laguntza zer ikastetxetarako eman –hezkuntza-zerbitzua eskaintzen duena–, ikastetxe horrek funtzio hauek bete beharko ditu:

- a) Ikastetxeko ikasleei eta familiakoei deialdiaren berri ematea; ikasketetarako laguntza edo beka bat eskuratu nahi badute, jarraitu beharreko prozeduraz eta aurkeztu beharrezko dokumentazioaz informatzea.

b) Prozesuaren jarraipena egitea, eskatzaileei behar beste informazio emateko.

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero, ikastetxeko zuzendaritzak edota, hala dago-kionean, idazkaritzak egiaztatuko du datuak egiazkoak direla (datu akademikoak, joan-etorriak, irakaskuntza, irakaskuntza-kuota, material digitalen programa eta curriculum-garapenerako eta jangelarako bitartekoak), hain zuzen ere, laguntza edo beka eskatzeko, aplikazioko konfigu-razio-tauletan betetakoak.

d) Ikastetxeek eskabideak eta horiei erantsitako dokumentazioa bideratu eta prestatuko dituzte; hain zuzen, alfabetikoki antolatutako zerrendetan prestatuko dituzte, eta, ondoren, lurralde-ordezkaritzari dagokion Zuzenean zerbitzuan aurkeztuko dituzte, edo mezulariz bidali Hezkuntza Sailera.

2.– Lurralde-ordezkaritzak eskabide guztiak eta aurkeztutako dokumentazioa jasoko ditu, eta espedienteak aztertuko ditu. Horrela, baloratuko du bekaduntzat hartzeko betekizun guztiak betetzen dituzten edo ez, eta zer osagaitarako eskubidea izango luketen, betiere Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzarekin koordinatuta; izan ere, azken organo horrek bere gain hartzen du agindu honetan araututako beka eta laguntzak kudeatzeko ardura.

26. artikulua.– Ebazteko prozedura.

1.– Eskabideak lurralde-ordezkaritzetan jaso ostean, ordezkaritza horiek egingo dituzte beka edo laguntzaren behin-behineko ebazpen-proposamenak, eta Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzara bidaliko dituzte, laburpen ekonomikoarekin batera.

Aurreko artikuluan ezarritako baldintzen arabera lurralde-ordezkaritzek bidalitako informazioarekin bat, Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzak emango ditu bekari edo laguntzari buruzko behin-behineko ebazpen partzialak eta ondoz ondokoak.

2.– Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak onartu dituen behin-behineko ebazpenen jakinarazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, honako webgune honetan: <https://euskadi.eus>. Horrez gain, Hezkuntza Sailaren web-orrian ere argitaratuko da: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>

Emandako diru-laguntzetan, osagaiak eta emandako zenbatekoak zehaztuko dira, eta, hala denetan, ukatutako osagaiak eta horretarako arrazoiak ere bai.

Alegazioak aurkezteko 15 egun naturaleko epea hasiko da, jakinarazpenaren datatik aurrera.

3.– Alegazioak aztertu ondoren eta epea igarotakoan, aurretik egin beharreko egiaztapenak eta izapideak eginda, Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak behin betiko ebazpena emango du.

Emandako diru-laguntzetan, osagaiak eta emandako zenbatekoak zehaztuko dira, eta, hala denetan, ukatutako osagaiak eta horretarako arrazoiak ere bai.

Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak onartutako behin betiko ebazpenen jakinarazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, honako helbide honetan: <https://euskadi.eus>. Prozedura-ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrez gain, Hezkuntza Sailaren web-orrian ere argitaratuko da: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>

4.– Sei hilabeteko epean ebatzi eta jakinaraziko dira laguntza guztiak, deialdia argitaratzen denetik aurrera. Epe hori bukatu eta ebazpen adierazirik eman eta jakinarazten ez bada, inter-dunek ezetsizat jo beharko dituzte eskabideak, hala ezartzen baita administrazio publikoen

administrazio-prozedura erkidearen Legearen 25. artikuluan (urriaren 1eko 39/2015). Edonola ere, gerora ebatzi ahal izango da berariaz.

5.– Aurreko puntuan esandakoa gorabehera, organo kudeatzaileak interesdunei jakinarazpen-abisuak bidali ahal izango dizkie, SMSak edo mezu elektronikoak igorri eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-baliorik izango.

6.– Beken behin betiko ebazpenean, jantoki-osagaiari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko, data horretan dauden datuak erabiliko dira. Ondoren, maiatzaren azken astean, aldatu egin badira jantokira bertaratutako egunak edo beka hori emateko kontuan hartu ziren baldintzak, beka berriz kalkulatu da, deialdi honen I. eranskinaren 30. artikuluan arabera.

27. artikulua.– Gerora sortutako egoera berriak.

1.– Eskatzaileak alegatzen duenean kide konputagarrien ekonomia-egoera nabarmen aldatu dela 2017. urtetik aurrera (erreferentzia-urtea), kasu horiek kontuan izango dira.

a) Familiaren ekonomia-egoera berria kontuan hartzeko, ezinbestekoa izango da egoera sorra-razituz gertakariak eta horien nondik norakoak adieraztea eta agiri bidez egiaztatzea.

b) Halaber, beka edo laguntza ematerakoan edo ukatzerakoan, familiaren ondarea osatzen duten ondasunen ezaugarriak aztertuko dira, bai eta errenta osatzen duten diru-sarrerena ere, batez ere kaleratzeengatiko kalte-ordainen edo kide konputagarrien ekonomia-egoeran kalte larriak eragiten dituzten bestelako gorabeheren kasuan.

c) Bizikidetzaren unitatearen sostengatzailea hiltzen edo ezinbestean erretiratzeko bada, edota ikaslearen familiaren egoera ekonomikoak kalte handiak izaten baditu –betiere justifikatutako arrazoren bat dela eta–, aintzat hartu ahal izango dira inguruabar horiek, baita unitatearen ekonomian duten eragina ere, sortutako egoera berria kontuan hartuta.

2.– Gerora sortutako egoera berri horiek, artikulua honen aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera justifikatuak, kontuan hartuko dira ikasteko beka eta laguntzen behin betiko ebazpena ematen den arte.

28. artikulua.– Beste erakunde batzuekiko lankidetzaren.

Hezkuntza Sailak foru-aldundietako ogasun-departamentuekin lankidetzaren kudeatuko du, baita administrazio publikoetako beste edozer erakunderekin ere, honako xede hauek lortzeko:

1.– Baliabide tekniko fiskalak erabiltzea, eskatzaileen familien errenten eta ondarearen benetako balioak zenbatetsi ahal izateko.

2.– Kasu jakin batzuetan egiaztatze- eta kontrol-lanetarako laguntza teknikoa ematea. Eragiketa horietan eraginkortasun handiagoa lortzeko, Hezkuntza Sailak foru-aldundietako ogasun-departamentuetako Datuak Prozesatzeko Zentroei eskatuko die banaka edo bereziki ikertu behar diren kasuen zerrenda.

29. artikulua.– Laguntzak ordaintzea.

1.– Laguntza dena batera ordainduko da, hilabeteko epean, Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak behin betiko ebazpena ematen duenetik aurrera.

Organon kudeatzaileak ordainketak egin direla jakinarazteko abisuak bidali ahal izango dizkie interesdunei, SMSak edo mezu elektronikoak igorri eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara.

2.– Eskatzaileak eskaera-formularioan jartzen duen kontu korrontean sartuko da laguntzaren zenbatekoa. Ez dira hala ordainduko, ordea, kudeaketa zuzeneko jantoki-zerbitzua duten ikastetxe publikoetan ikasten duten ikasleen laguntzak; izan ere, laguntza horiek zuzenean sartuko dira ikastetxe horien kontuan.

3.– Jarritako gora jotzeko errekursoen ondorioz gorantz aldatu beharko balitz emandako laguntzen zenbatekoa, ordainketa osagarri bat egin beharko da hilabeteko epean, aipatutako errekursoak osorik edo zati batean onesten dituen ebazpena ematen den egunetik kontatzen hasita.

30. artikulua.– Aldatzea, errebokatzea eta itzultzea.

1.– Aldatzea erabaki daiteke, baldin eta beka edo laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, bestelako laguntzak edo diru-laguntzak pilatuta eskuratzen badira eta helburu bera duten bestelako diru-sarrera edo baliabideak jasotzen badira. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.12 artikuluari jarraituz (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua), beka emateko ebazpena aldatzeko, beka edo laguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak babestu behar dira.

Beka eman izana aldatzeko ebazpenak espedientearen entzunaldi- eta ikustaldi-izapidea izan behar du alde aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 82. artikuluan aurreikusten duen moduan.

2.– Errebokatu eta, hala badagokio, itzuli egingo da beka edo laguntza emandako helburu espezifikorako erabiltzen ez denean, laguntza eskuratzeko eskatutako baldintzak betetzen ez direla egiaztatzean, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan jasotako gainerako kasuetan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua). Errebokatzea erabaki ondoren, emandako zenbatekoa oraindik ordaindu ez bada, ezingo da ordainketa eskatu, eta, ordainduta egonez gero, jasotako zenbatekoak eta horien legezko interesak itzuli beharko dira.

Itzultzeko prozedura, berriz, aipatutako Legearen 53.4 artikuluan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4. eta 5. artikuluetan xedatzen da.

Itzulketa agintzen duen ebazpenean, beharrezko informazioa jasoko da, itzulketa egiteko betebeharra bete dezan, legezko diruz edo txekez edo Ogasun eta Ekonomiako sailburuak baimendutako beste edozein bide erabiliz. Horretarako, bi hilabeteko epea emango zaio, dirua itzuli behar duela dioen ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera.

Itzuli beharreko diruaren zenbatekoaren eta ikaslearen bizikidetz-unitatearen kaudimen ekonomikoaren arabera, Ogasun eta Ekonomia Sailak ordainketa gehienez hiru zatitan eta urtebeteko epean egitea onar dezake, interesdunak hala eskatuz gero, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan diru-bilketaren inguruan indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz.

Eskuratutako zenbatekoak borondatez itzultzen ez badira, premiamendu-bideari ekingo zaio.

3.– Ikasketa-laguntzak aldatzeko, errebokatzeko edo itzultzeko ebazpenen berri eman ahal izango zaie agintari fiskal, akademiko edo, hala badagokio, judizialei, sor daitezkeen gainerako erantzukizunak eskatzeko.

31. artikulua.– Bateragarritasuna.

1.– Eibarko Hezkuntza Esparruko ikasleek eskatzen dituzten laguntzak bateragarri izango dira bertako ikasle izateagatik jaso ditzaketan onurekin, baldin eta onura horiek hartzen ez dituzten gastuei aurre egiteko badira. Hortaz, bateraezina izango da gastu kontzeptu bererako bi laguntza jasotzea.

2.– Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuetatik helburu bererako jaso daitekeen beste edozein onurarekin, betiere horiek guztiak batuta ez bada gainditzen laguntzaren xede den gastuaren % 100. Kasu horretan, dagokion zenbatekoa murriztu egingo da.

3.– Deialdi honen I. eranskinean araututako gainerako ikasketa-laguntzak bateraezinak izango dira helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jaso daitezkeenekin.

32. artikulua.– Ikuskatzea.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak datuak benetakoak direla egiaztatzeko egintzak abiarazteko eta abiaraztea eskatzeko ahalmena izango du, bai eta agindu honen I. eranskinean araututakoa betearazteko ere.